

Aikor!

txorierri zarkaria



Mikel Artetxe:

**“Geure burua defenditzeko
beste kirolari daukaguz
Euskal Herrian”**

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Oihana Astobieta, Udane
Goikoetxea, Mireia Sanz, Leire
Palacios, Eneritz Iarraña, Maripi
Agirre, Irati Etxebarria, Euskaltel-
Euskadi Fundazioa, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiartza

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



11 Amparanoia



24 Derioko Santiago jaiak



22 Gloria Patricia Mesa



13 Ane Baraiazarra eta Amaur Holgado



20 Aberekin



26 Txorierri Motor Sport

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 10Euskararen egoera
Derion 11Gurean izan da... Amparanoia 12Gazteen txokoa 13Gaztea
eta... Ane Baraiazarra eta Amaur Holgado 14Asisko Urmeneta
16Mikel Artetxe 20Aberekin 22Gloria Patricia Mesa 24Derioko
Santiago jaiak 26Txorierri Motor Sport 28Baserri mundua
29Teknologia 30Txorierri ezagutu 31Txorierritarrak munduan
32Sukaldaritza 33Denbora pasa 34Agenda

**AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu,
hemen dozu erea:**

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Pedalkada mundua



Udane Goikoetxea
(Bizkaia Irratiko esataria)

Gizarteaz, kultur aniztasunaz, politikaz, gerrez, kutsaduraz, geure herriaren izaeraz, euskereaz, zeren ganean ez dogu, bada, irakurri eta idatzi? Egunkaria zabal-tzen dala, irratia entzuten dala, telebista piztuten dala... Beti baina Irakeko gerrea, hauteskundeak, politikarien aurpegiak, petrolio upelen prezioak, ...Errealitatea hori da? Hori baino ez da?!

Egia esan, iturria beti dago zabalik eta tantaka barik 83ko uriolen abiadan dator-ku behin eta barriro eguna. Pausu labur eta arinak. Begiradea hemen, han gero.

Asago sarritan. Erlojuak tik-tak dino. Esan eta ez izan; haizeak udako elaiak dinbilitanbala erabili zein orbelak dantzarazi. Egutegiko orriak bat, bi, maiatza, bagila, garagarri! Zuri baltzean eguneroko letrak egunkarietako azaletan. Betikoa. Gainontzekoan kirola, horoskopoa...

Aurretik begiztatutako barririk tragikoenak osatzeko medizina? Piztu irratia, amatatu telebista, erosi aldizkariak, ikusi ale elektronikoak zein web orriak. Eguzkia amatatu, izarrak isiotu. Izarrak amatatu, eguzkia isiotu. Egun andana barriro atzean. Egin da irribarrerik ordu, minutu, segundu guzti horreetan? Eta jasoten

dogun informazinoaren ganeko gogoetarik? Arnasea sakon hartu.

Ez dakit entzuna edo irakurria dodan irakurleak zein idazleak gizar-tea kanpotik begiratu behar dauala eta gogoeta egin, ezin dala errealitatearen imitatzailerik huts izan. Halan ba, errealitate hori irudimenaren galbahetik iragaziz, gauzak diran -ei diran- moduan onartzerako gaitu, baita bizitzaz gogoeta egitera bere. Urrunketa efektuak arte munduan itzelean balio dau, derrigorra bere bada obrak ulertzeko. Aplikatu daigun adibidea eta Bertold Brecht-en urrunketa efektuari tartea egin. Brecht-ek zera inoan, errealitatearen ganean hausnartzeko ezinbesteko tresna dala urrunketa efektua. Orain artekoan asko eztabaidatu da irakurlearen iragazki beharraz, idazleen rola. Oraindik asko eztabaidatuko da, seguru. Izan be, idazleak -kazetari nahiz nobelagile-geure garunetara zuzenduko ditu lan luzeak, testu labur-rrak, esaldirik sinpleenak. Geure barruan zeozar asaldatu gurean danak

ere. Irakurle, arduratu zaitez, kezka honen konplizitatea bilatu.

Egunerokotasunaren aingura askatu. Gogoeta egin ikusitakoaz, ikasitakoaz, jasotako guztiaz. Beste egun andana bat iheska. Egun horreetariko batean, norako prisaz? dinotsat ispiluko horri. Ez dakit, dinost kontzientziak. Noiz albokoari irribarre egiteko abagunerik, noiz ingurukoaren begiak irakurtzeko astirik? Noiz. Bizikleteari pedalak emotea derrigorra da aurrera joateko, baina galgarik bako bizikletarik bai? Munduari pedalkadaka bagenbilz lege bizi gara.

Familiaren esku-hartzea



Mireia Sanz
(Drogamenpekotasunen
Prebentziorako teknikaria)

Oro har, denok ados gaude baieztatzeko familia oinarritzeko dela hezkuntza programak garatzeko orduan. Honen inguruan eginiko azterlanek egiaztatzen dute familiak ondo funtzionatzeko duenean, nerabeek garapen pertsonal egokiagoa izaten dutela.

Baina, guk gurasook nola lagun diezaiekegu geure seme-alabei? Askok euren buruei honako galdera hau egingo diete: zer da, adituaren iritziz, familiaren funtzionamendu egokia?

Ez da kontu erraza galdera hauei erantzutea. Garai batean, aitona-amonak bazeukaten aukera jakiteko nola-koa izango zen euren iloben mundua, eta gurasoek argi zeukaten zeintzuk ziren seme-alabak hezteko erabili behar zituzten tresnak. Gaur egun, hau ezinezkoa da, errealitatea oso aldakorra delako eta guztiontzat erabat ezinezkoa delako etorkizuna zein izango den jakitea.

Beraz, erakundeetatik oraingo beharrei antzematera behartuta gaude, errealitate ezberdinen aurrean taldeko gune berriak sortzeko, beste batzuekin batera bestelako ezaugarriak dituen errealitate berria aurkitu eta kontu hauei euren gaitasunak ikasi ahal izateko.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Hori Bai zutunik!

Gu jaio baino askoz lehenago bazegoen; orduko gazteon —eta ez hain gazteen— beharrei erantzuteko jaiotako egitasmoan gorpuztutakoa.

Gu umeak ginean, Zamudion inongo eskaintzarik ez genuenean, larrabetzuar umeak bazituzten jokoak, merendolak, ekitaldiak, jaiak eta abar luze bat.

Gu gaztetasunera heldu ginenean gure “inbidia”-ren ispilua zen: kontzertuak, sormenerako topalekua, hitzaldiak, gazte egunak, ospakizunak, euskal kulturaren sustatzailea... elkar harremanerako biltokia alegia. Gure herrian egitasmo berdinari eutsi geniezaioke-ela erabaki eta gure burua Zamudioko Gazte Asanblada izendatu genuenean, bere atea zabaltu zizkigun: jende multzo andana lagun-

tzeko prest, azpiegitura aldetik beharrezkoak ziren baliabideak, nondik jo jakiteko eredua, adibideak, proposamenak... eta orain urte guzti horietako lana, emaitza eta errealitatea alkate eta obispado batek zapuztu nahi dutela enteratzen gara.

Ez da berria helburu hori, aspaldiko kontuak dira. Txorierrin gazteok kale gorrian eta guztiz pasiboak nahi gaituztela agerikoa da, Zamudio eta Larrabetzu horien lekuko garbiak direlarik.

Hori Bai gazte guztion etxea da; ez soilik Larrabetzuko gazteona, gu geu ere gaztetxe eta proiektu honen partaide sentituarazi gaituelako. Hortaz, bere defentsa eta garapena ere guztion ekarpenetik abiatuko da.

Animuak eta geure indar guztiak helarazi nahi dizkiegu Hori Bai kide izan zareten, egun zareten eta etorkizunean ere izango zaretenoi; behar denerako prest gaituzue, funtsean, Hori Bai ere gurea badelako.

Era berean, Txorierrin gazteoi dei berezi bat egin nahi dizuegu; izan ere, gure partetik egin dezakegun ekarpenik handiena gazteon beharrian eta nahiei era erreal batean sorturiko egitasmoak bultzatu eta animatzea da, eta hortaz, Hori Bai antolatzen dituen ekintza guztietan parte har dezazuen animatzen zaituztegu, hori bai da benetan eta, HORI BAI!

*Alaitz Ziordia eta Haritz Petralanda
(Zamudioko Gazte Asanbladaren izenean)*

Emakumea eta kirola

Gauza jakina da emakumeak kirol arloan ere bizi duela desberdintasun edo gutxiagotasun egoera. Nerabezaroan kirola alde batera uzten dutenetatik gehienak emakumeak izaten dira, nahiz eta bizitzaren aro hori garrantzi handikoa den pertsonen sozializaziorako. Arrazoiak asko dira: erreferente berrien beharria, aldaketa fisikoen ondorioz izaten den ziurtasun falta, exigentzia akademiko handiagoak, eskolak eta familiak transmititutako gizarte estereotipoen erreproduzioa...

Baldintza horiek guztiek eramaten dute emakumea kirola alde batera uztera eta bere jarduera sozialetik baztertera. Horren ondorioz alferrik galtzen du kirolak

dakartzan onura fisiko, psikologiko eta sozialak bereganatzeko aukera.

Momentu honetan, emakumezkoen lizentzia federatiboen kopurua askoz txikiagoa da gizonezkoena baino. Beste hainbeste gertatzen da emakumeek parte hartzen duten kirol disziplinen kopuruarekin eta disziplina horietan emakumeek izaten dituzten kategorien kopuruarekin.

Esparru sozialean ere, emakumeen kirolaren presentzia eskasagoa da komunikabideetan, eta, emakumezkoen kirol erreferenteak gizonezkoenekin alderatzen baditugu, gutxiago dira.

Gaur egun, kirol jardueraren bat praktikatzen duten emakumeen kopurua nahiko eskasa da. Gutxiengo horrek, nahiz eta kirol arloko ezagutzarik (elikadura, intentsitatea, maiztasuna...) ez eduki, kirolaren aldeko apostu gogorra egin du eta era horretan beste batzuei bidea zabaltu eta animatzen ditu.

Denon lana izan beharko litzateke kirola bultzatzea, baina arlo honetan erakundeetan (udaletan, Aldundian...) zer esan eta zer egin handia dago oraindik.

Maripi

Parte hartze eskasa Txorierriko Aste Berdean

Maiatzaren 31tik ekainaren 6ra bitartean Aste Berdea izan zen Txorierri. Hori dela eta, umeei zein helduei zuzendutako hainbat ekitaldi egin ziren gure herrietan: hitzaldiak, ikastaroak, tailerrak... Antolatzaileen helburuak hauek izan ziren: alde batetik, jendeak ingurumenarekin errespetuz jokatzeko, eta, bestetik, gai honi buruzko iritziak elkarrekin trukatzeko. Hala ere, Agenda 21en arduradunek Aikor! aldizkariari azaldu diotenez, ekintzarik gehienetan parte hartzea eskasa izan da. Esate baterako, Zamudion, Loiu eta Larrabetzun antolatutako hiri eta etxeko ekologiari buruzko hitzaldira ez zen inor joan. Nagusiei zuzendutako ekitaldietara ere txorierritar banaka batzuk baino ez ziren agertu. Umeentzako ekintzak, berriz, arrakastatsuagoak izan ziren, eta txotxon-

giloek, adibidez, ume asko erakarri zituzten. Tailerretan parte hartze handirik egon ez arren, umeak poz-pozik irten ziren bertan ikasitakoarekin.

Jaialdia

Aste Berdearen Jaialdia Derioko frontoian ospatu zen ekainaren 5ean. Bertan, Lezamako alkatea eta Mankomunitateko presidentea den Luis Ramón Alvarezek gogorarazi zuen guztion parte hartzea behar dela Txorierri garapen iraunkorre-rantz eramateko. Gainera, Txorierriko alkateek sei arbola landatu zituzten kiroldegia-aren alboko lorategietan, eta lun-cha eskaini zen, oroigarritzko plaka eraku-tsi ondoren. Arrastian, ume eta gazteentzako jolasak, puzgarriak eta esku-lan tailerrak izan ziren, besteak beste.



Goitioltzako jaiak bizirik!

Urte batzuk pasatu dira Lezamako Goitioltza auzoko jaiak ospatu barik, baina aurten inoiz baino indartsuagoak datoz. Jai batzordeak uztailaren 10ean eta 11n antolatutako egitaraua dozu hurrengo lerrootan.

Uztailak 10, zapatua

09:00etan Txupinazoa. Txakolin bira Goitioltzatik, Zorritzketan-en laguntzagaz
13:00etan Dantzariak, Kurutze dantza taldeagaz
13:30ean Juntxitori omenaldia
15:00etan Herri bazkaria. Bertsolariak.
18:00etan Herri kirolak
23:00etan Gau pasa Tapia eta Leturia eta Ene Bada taldeakaz

Uztailak 11, domeka

13:00etan Herriko txakolina dastatzea, trikitila-riak, Zorritzketan-en laguntzagaz
16:30ean Mus txapelketa
17:00etan Umeen jolasak eta animazioa
20:30ean Erromeria Urgabe taldeagaz

David Bowieren kontzerturako sarrerak salgai

Uztailaren 14an, eguaztena, David Bowie abeslari ingelesak kontzertua eskainiko du Bilboko zezen plazan, eta bertara joateko sarrerak salgai jarri dira Lezaman eta Larrabetzun. Bi herriotan erroldatuentzako prezioa 38 eurokoa izango da; erroldatu gabeek, berriz, 48 euro ordaindu beharko dute.

Nagusientzako Uda programa Zamudion

Zamudioko Udalak nagusientzako ekitaldi sorta zabala bat antolatu du uztailaren 5etik 23ra bitartean. Zamudioztarrek, beraz, multia-benturako kirola egin ahal izango dute eta, gainera, iparorratza erabiltzen ikasi edo arbo-la motak ezagutzeko aukera izango dute. Uztailaren 26tik 30ra bitartean, Frias (Burgos) herriko kanpalekura joango dira eta bertan, espeleologia, trekkinga eta rappela egingo dituzte, besteak beste. Argibide gehiago Udaletxean.

Loiuko futbol kluba omendu du Udalak

Loiuko klubak ezin hobeto amaitu du aurtengo futbol denboraldia: Bizkaiko mailarik gorenera igo da, Orozkoko Atxulaur taldeari irabazi ondoren. Jokalarien lan bikaina saritzeko, Loiuko Udalak plaka bat eta 10.300 euroko diru laguntza eman zizkion klubari ekainaren 12an.

“Oso pozik gaude merezi dugun kategorian gaudelako”, esan zion Aikor! aldizkariari Jose Urrutikoetxea Urti klubaren presidentea. 1995ean, taldeak Bizkaiko mailarik gorenera igotzea lortu zuen, baina hurrengo denboraldian erregionaleko 1. mailara jaitsi zen berriro. Urtik adierazi digunez, azkeneko urte hauetan taldea jo eta ke ibili da lehenengo postuetan, “eta lortu dugu azkenean. Lehenengo errondan oso ondo ibili gara eta bigarrean



askoz hobeto, 17 partidutatik 14 irabazi ditugulako”. Gainera, hurrengo denboraldian ohorezko mailara igotzeko ahalegiak egingo dituztela ziurtatu digu. Gonzalo Alvarez taldearen kapitaina ere oso pozik agertu zen, “Denboraldi osoan zehar oso ondo ikusi dut taldea; bigarren erronda bikaina egin dugu, eta ezin izan digute garaipena kendu”.

Agenda 21 aurkeztu da herriz herri

Aspaldi honetan Txorierriko Agenda 21 egitasmoaren berri eman dugu Aikor! aldizkarian. Gure eskualdean dauden arazo sozial, ekonomiko eta inguruneak aztertu eta konponbideak proposatzea du helburu proiektu honek. Horretarako, txorierritarren laguntza ezinbestekotzat jotzen du Udaltalde 21-ek. Bide honetan, Txorierriko Agenda 21 aurkeztu da herriz herri. Egitasmoaren garrantzia eta helburuak azaltzeaz gain, galdeketa bat zabaldu zen aurkezpenetara bildu zirenen artean, herri bakoitzeko aspektu negatibo eta positiboak ezagutzeko asmoz. Emaiz arabe-

ra, Txorierri bizi eta lan egiteko leku egokia dela uste dute inkestatuek. Hala ere, etxebizitza, lana, ingurumena, kultur eta aisialdiko zerbitzuak eta herritarren segurtasunarekin kezkatuta agertu ziren orokorrean. Halaber, udal plangintza egiteko eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera gutxi daudela adierazi zuten gehienek. Herri garraioari dagokionez, herriak nahiko ondo komunikatuta daudela pentsatzen dute, loiuztarrek izan ezik. Beste alde batetik, gizarte eta osasun zerbitzuen mailarekin pozik daudela adierazi zuten, baita irakaskuntzarekin ere.

Erromesentzako aterpea ireki da Lezaman

Ekainaren 15ean, Done Jakue bidea egiten dutenak hartzeko aterpea ireki zen Lezamako abadetxean, Amigos del Camino de Santiago elkarteak bultzatuta. Aterpea irailera arte egongo da zabalik, eta erromesek gaua igaro ahaliko dute bertan. Hartarako, bainugela bat, logela bi (5 oherekin) eta egongela bat atondu dira Andra Mari elizaren abadetxean. Gainera, arduradun bat izango da egunero, arrastiko 4etatik gaueko 9ak arte, eta erromesik egonez gero, gauaz ere geratuko da.

Tenerifera bidaia Loiun

Irailaren 18tik 25era bitartean Teneriferako Puerto de la Cruzera joateko bidaia antolatuko du Loiuko Udalak. Prezioei dagokierik, bi pertsonentzako gela hartzen dutenek 370na euro ordaindu beharko dute; hiru pertsonako gela aukeratzen dutenek, berriz, 365na euro eta pertsona bakar batentzako gela nahiago dutenek 461 euro. Halaber, 7 urtera arteko umeek 194 euro, eta 8 urtetik 12 urtera artekoek 282 euro ordaindu beharko dute. Umeak nagusi birekin egongo dira gelan. Prezioen barruan bidaia, aireportutik hotelera joan-etorriak eta Palmeras Playa apartahotelean egonaldia (pentsio osoa) sartzen dira. Interesatuak uztailaren 15era arte izena eman ahal dute Udal bulegoetan. Horren inguruan, bidaia zati bitan ordaintzeko aukera emango zela aipatzekoa da. Halaber, herrian erroldatutako 30 pertsona, gutxienez, beharko dira bidaia egin ahal izateko. Loiun erroldatuek lehentasuna izango dute.

Nazioarteko folklore erakustaldia Sondikan

Uztailaren 23an, 22:30ean, nazioarteko folklorearen erakustaldia izango da Sondikako Goronda Beko udal kiroldegian. Bertan Eslovakia, Letonia eta Euskadiko taldeek euren dantzak eskainiko dituzte. Dantza talde hauek Portugaleteko XXX. Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko dute parte.

Ehun ume baino gehiago Txorierriko Eskupilota Txapelketan

Ekainaren, 20an Txorierriko Eskupilota Txapelketaren finalak jokatu ziren Derioko pilotalekuan, herriko Atxiki pilota taldeak antolatuta. Irabazleak ondorengo hauek izan ziren: Larrabetzuko Aitor Ramirez eta Eder Erkoreka, umetxo kategorian; Zamudioko Aimar Olabarrieta eta Lander Aretxabaleta, ume kategorian; Lezamako Jon Loidi eta Iker Urigoitia, gaztetxo kategorian, eta Lezamako Xabier Elorza eta Ibon Arrieta kadete kategorian.

Txapeldun eta txapeldunordeei sariak eta txapelak eman zitzaizkien. Gainera,

txapelketan parte hartu zuten pilotari guztiek oroigarri bana jaso zuten. Azkenik, Larrabetzuko Amañur Holgadori sari berezia eman zitzaion, aurtengo Euskal Herriko nesken arteko txapela irabazteagatik.

Beste alde batetik azpimarratu beharra dago aurtengo pilota txapelketan 108 pilotarik hartu dutela parte: Larrabetzutik 27k, Lezamatik 23k, Zamudiotik 18k, Sondikatik 8k eta Deriotik 32k. Mailei dagokienez, 30 ume lehiatu dira umetxo mailan, 32 umeetan, 31 gaztetxoetan eta 15 kadeteetan.



Linterna Gorria aldizkariaren 6. alea paperean

Linterna Gorria aldizkari elektronikoaren 6. alea paperean kaleratu dute Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubeko kideek. Paperezko ale berezia da, eta bertan testu berriak ez ezik orain arte sarean argitaratutako lan batzuk ere biltzen dira. Linterna Gorriaren paperezko alea Euskal Herriko liburutendeetan zabalduko da doanik. Urtarilaren 17an, Linterna Gorria aldizkari elektronikoa (www.armiama.com/bbk/linterna) sortu zuten BBK-koek. Narrazioak, poesiak eta elkarrizketak irakurtzeko aukera dago web orrialdean.

Tenis ikastaroa Lezaman

Uztailaren 13tik 29ra bitartean eta abuztuaren 3tik 31ra bitartean Tennis ikastaroa izango da Lezamako kiroldegian, Bizia Kirol Taldeak antolatuta. Ikastaroa martitzen eta eguenetan, goizez, egingo da. Argibide gehiago nahi izanez gero edota izena emateko 616025951 telefono zenbakira (Letizia) deitu behar da.

Lezama Herriarteko Pilota Txapelketaren finalera

Ekainaren 18an, Herriarteko Pilota Txapelketaren finalurrekoak jokatu ziren Lezaman, eta etxeko taldeak irabazi egin zion Gernikakoari (2-1). Kadete eta helduen kategorietan lezamarrak izan ziren nagusi, 22-4 eta 22-10 emaitzekin, hurrenez hurren. Gazteen kategorian, berriz, gernikarrek hartu zituzten mendean (10-22). Lezama Usansoloren kontra jokatuko du finala Zeanurin uztailaren 3an.

Auzo jaia Laurotan

Urtero lez, Laurotako jubilatuek eta jai batzordeak "Auzo Jaia - Jubilatuen Eguna" ospatu zuten ekainaren 6an. Meza ostean, Xabier Amuriza eta Mikel Mendizabal bertsolariak, trikitilariak eta tiragoma txapelketa izan ziren. Aurregoiti jotetxean bazkaldu ondoren, jaiak aurrera jarraitu zuen bertsolari eta trikitilarien eskutik.

Derio zurekin aurrera kanpaina aurkeztu da

Lander Aiarza Derioko alkateak, Josu Garmendia zinegotziak eta Mari Mar Mellado Zerbitzu eta Merkataritza elkartearen presidentek *Derio zurekin aurrera* kanpaina aurkeztu zuten ekainaren 17an. Kanpaina honek herria bultzatzea zuen helburu, eta hartarako hainbat ekitaldi antolatu zituzten ekainaren 21etik 25era bitartean. Besteak beste, ekitaldi hauek antolatu ziren: merchandising-aren zabal-kundea herritarren artean, merkataritza elkarterako hitzaldiak eta Bizkaiko Foru Aldundiko ingurumeneko autobusa. Gainera, kanpainari amaiera emateko gala bat ospatu zen ekainaren 25ean. Bertan herriak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman zen, eta Derioren promozio bideoa aurkeztu zen.

Beste alde batetik, Aiarza alkateak Udaltzatzen hurrengo lau urterako politika ezagutarazi zuen prentsaurrekoan. Bertan adierazitakoaren arabera, datozen urteotan Udalak, besteak beste, ondorengo arlo hauetan jardungo du: euskara, emakumea-

ren egoera eta ingurune sozial eta ekonomikoa. Beste alde batetik, Udalak borrokatuko du herritarrei babes ofizialeko etxebizitzak eman ahal izateko. Azkenik aipatu zuen, Foru Aldundiarekin lortutako akordioa dela medio, laster Uribe parkea eraikiko dela.



Hori Bai gaztetxea konpontzen laguntzeko bonoak eta kamisetak salgai

Aikor! aldizkarian azaldu genuen bezala, Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeak buru-belarri dabilta etxea eraberritzeko lanetan. Dagoeneko teilatua konpondu dute, baina hainbat behar egiteko dute oraindik.

Eraberritzeko lanen kostuei aurre egiteko larrabetzuar eta txorierritar guztien laguntzaren premia dute, eta kamisetak (50 euro) eta 20 euroko bonoak jarri dituzte salgai. Horrez gainera, kontu korrante bat zabaldu dute BBK bulegoan: 2095 0046 3 0 91-0601940-7. Nahi duenak bere ekarpena egin dezake bertan.



Derioztarren %6k euskaraz egiten du etxean

Tximintx euskara alkartekook orain dela urtebete sortu ginenean, intuizio bat genuen. Intuizio horren arabera, guk uste genuen Derion euskararen egoera ez zela pentsa zitekeen bezain ona. Baina intuizioak intuizioak dira, eta errealitatean frogatu behar dira datu zientifikoekin. Eta, beraz, behar horri ekin genion.

Horretarako, txosten bat egin dugu eta bertan bildu ditugu han-hemenka sakabanaturik zeuden hainbat datu. Hortaz, gure lana ez da originala, bertako datu guztiak egon bazeuden, guk egin duguna datu horiek guztiak bildu eta sistematizatzea izan da. Ez gara hemen hasiko datuak aletzen, horretarako leku aproposa ez baita. Ondorioei helduko diegu. Dena den, norbaitek interesa badu, Tximintx alkarteari eskatzea baino ez du egin behar.

Horrenbestez, ondorio nagusiak hauek dira:

- Ezagutzari dagokionez, azken 20 urteotan euskaldunen kopuruak gora egin du. Baina erritmoa asko moteldu da azken 5 urteotan (1996-2001). Aurreko urteetan batez besteko igoera urtero %0,5 izan bada, azken 5 urteotan igoera %0,1 izan da.

- Derion bereziki aipagarria da ia euskaldunen kopurua, euskaldunen parera iritsi baita azken 5 urteotan.


- Oso kezagarria da etxean euskara bakarrik erabiltzen dutenen kopurua: derioztarren %6,4a. Multzo honetakoak izaten dira hizkuntza baten elikadurara-

ko funtsezko taldea eta Derion, ikusten dugunez, oso gutxi dira.

- Irakaskuntzari dagokionez, ez dugu derioztarrei buruzko daturik topatzerik izan. Beraz, horien ordez Derion dauden ikastetxeei begiratuko diegu, uste dugulako derioztar gehienak herrian bertan ikasten dutela. Irakaskuntza maila guztietan D eredua da jaun eta jabe (batzuetan bakarra), Lanbide Heziketan izan ezik. Honetan joera guztiz bestelakoa da.

- Euskalduntze alfabetatzeari dagokionez, datuak eskualdekoak izanik ere, oso positiboak dira. Alde batetik, sektoreak gogor jo duen krisiak ez du eragin handirik izan. Beste alde batetik, Euskal Herri mailan erdaldunak direnen artean %2,1 euskaltegietan dabilen bitartean, Txorierrin kopuru hori bikoitza da (%4,5).

- Lan munduan, aldiz, panorama beltza da. Derion ez dago euskara planik duen enpresarik. Merkataritza txikian, aldiz, euskalduntze kanpaina dago martxan, baina Derion parte hartzen duten establezimenduen kopurua euskaldun indizetik nabarmen behera dago.



Bukatzeko, datuak ez dira izan guk uste genuen bezain onak. Ikerketa martxan jarritakoan bestelako datuekin topatu genituela uste genuen, baina ez da horrela izan. Dena den, datuen artean badira itxaropentsuak direnak ere, eta horiek oso presente izan behar ditugu. Orain dugu panorama hau aldatzeko ordua, beti ere errealitatearen ezagutzatik abiatuta.

Testua: Txerra Rodriguez

Amparo Sanchez, Amparanoia musika taldearen abeslaria

“Abesti bat botila baten barruan dagoen mezua da; norbaitek jaso dezan botatzen da”

Caravane Tour 2004 birak Estatuko zein Europako hainbat jaialditara eramango du aurten Amparanoia musika taldea. Txorierrin ere euren musikaz gozatze-ko aukera izan genuen Zamudioko Pazko jaietan. Herria txiki gelditu zen, plazan ehunka lagun batu baitziren –batzuk Madril eta Oviedotik etorrita- Amparoren paranoiarekin bat egiteko.

Rebeldia con alegría abestien bilduma kaleratu berria duzue. Hitz egin ieza-guzu apur bat diskoari buruz...

Gure diskoak kaleratu ez diren Europako herrientzako aurkezpen-karta da, izan ere, herri horietatik ere bira egingo dugu aurten. *Rebeldía con alegría* diskoak lau albumen abesti batzuk biltzen ditu, baita argitaragabeko bi kantu ere. Horrezaz gainera, Calexico musika taldearekin batera egindako *Don't leave me now* abestiaren bertsioa ere sartu dugu bertan.

Zeintzuk dira biraren planak?

Aurtengo bira alde z aurretik eginda-ko lan handiaren emaitza da. Orain dela lau urte Europara irteten hasi eta hain garrantzitsuak diren musika-jaialdi horie-tan guztietan gaude orain. Beraz, ahalik eta gehien disfrutatzea dugu helburu.

Rumba, latin-jazz, rock, ska, reggae... Amparanoiaren musika munduko musiken fusioa da, baina nola definitu-ko zenuke zuk?

Zeuk esan duzu: munduko musiken fusioa. Niretzat Amparanoia da, sinpleki. Hau da, estilo berezkoa dugu, baina fusio horren ondorioa da, noski.

Eta nori edo zeri abesten dio Amparanoiak?

Jendeari. Horrela, sentitzen dudana besteei adierazteko tresnatzat daukat ahotsa. Eta konposatzeko orduan bizi-tzak iradokitzen dit: ikusi eta sentitzen ditudan gauzek, hurbil dudan jendearen bizipenek, nireek, munduak...

Abestien bidez, adierazi eta errebindi-katu egiten duzue musikariok; ados. Baina, zure ustez, jendeak benetan entzuten du mezua?

Bakoitzaren arabera. Jendeak nire hizkiei buruz hitz egiten dit: momentu baten aurrera egiteko indarra eman zie-tela, pozten dituztela... Neuk ere entzu-ten ditudan taldeen hizkiei erreparatzen diet... Horrela, bada, abesti bat botila baten barruan dagoen mezua da; nor-baitek jaso dezan botatzen da, nire ustez.

Duela urte batzuk Mexikon egon eta Marcos subkomandantea ezagutu...

Ez, ez! Karabanen hartu nuen parte, baina ez nuen Marcos ezagutu. Indigenen bozeramaile bezala mira egi-ten badiot ere, niregan benetako eragina izan zuena mugimendu zapatista izan zen. Mugimendu horrek *Somos viento* diskoaren ia letra guztiak konposatzera bultzatu ninduen.

Musikari askorekin kolaborazioak egin dituzu, Manu Chao eta Fermin Muguruza euren artean. Zer deritzozu azken hau eta beste euskal musikari batzuen aurkako zabalduetako kanpai-nari?

Lortzeko hainbeste denbora eta min kostatu ziren eskubideak galduz doaz gaur egun. Eta horietariko bat adieraz-pen askatasuna da. Horri mehatxu egiten diote boteredunek, hau da, pentsamen-du bakarra baino ez egotea nahi dute-nek; haiek gogoko dituzten berriak, musika, filmak eta abarreko mugimen-duak baino ez egotea nahi dutenek... Horrela pentsatzen ez dugunon batasu-na datozen belaunaldiak askatasun osoz pentsatu eta hitz egin dezaten nahikoa izatea espero dut.

Bukatzeko, zein da Amparoren para-noia?

Musika egitea. Nire paranoia izateaz



“Nire paranoia izateaz gain, nire barneari lotu eta umarazten nau musikak”

gain, nire barneari lotu eta umarazten nau. Musikari esker, eszenatoki batera igo eta momentu hori nirekin konpartitu nahi duen publikoa dago. Ondorioz, paranoia elikatuz doa, handituz doa.

Testua: Itxaso Marina
Argazkia: Sugestion

Hau da aroa!

Azkenik uda! Hainbeste denbora sufritzen, ondoren egun hauetaz gozatzeko. Aurten bigarren batxilergoko kurtsoa burutu dut: fama txarra duen kurtsoa. Zergatik den horrela? Arrazoia sinplea da: notari buruzko lehenengo buruhaustekak sortzen dira; nota igo behar dudala; selektibitateari buruzko lehenengo txapak, amak zezenak harrapatuko zaituela esanez... Hau don urtea!

Urria eta lehenengo ebaluaketak ageri dira, baina jadanik errekerazioen errit-mora moldatzeko kalabazaren bat zure notekin batera. Horrela emango nituen hurrengo bederatzi hilabeteak, irakasleekin aurrera eta atzera aholkuak eta horrelakoak entzuten.

Kurtsoa igaro eta maiatzean gaude. Azkenean azterketak dauzkagu; denok larri gabiltza gainditu nahian, ekainean selektibitateara joan ahal izateko. Gogoan ditut hamabost egun haiek, ikasi ta ikasi eta lo gutxi eginez. Azkenean denak gainditu eta orduan hasten da azken txanpa: ditxosozko selektibitatea!

Prestatzen joateko errebaso klaseak; mateko lehenengo ebaluaketa, bestetik Platon... Hau nahastea! Baina, bestalde, hor dabilta irakasleak promozio txarrena garela, patxadaz ez dugula ezer prestatu esanez, eta holan beste hainbeste.

Heldu da eguna! Ekainak 9. Leioarako bidean kotxean apunteekin; hara heldu, dena gorde eta azterketa. Zer galdetuko didate? Auskalo!

Orria hartu, eta klaseko ariketa bat balitz bezala lanari ekin. Horrela hiru egun luzean, klasekideekin kirioak dantzan



jarritz, ondo ala txarto egin dugun pentsatzen. Ondoren, beste azterketa bat daukat, baina zertarako errebasoa eman? Ideiak nahastu baino ez ditut egingo. Orduan, liburuak itxi, eta lagunekin pasilloan asteburuari buruz mintzatzea erabaki dut. Azterketa ordu erdira daukagu, eta denok uda planeatzen. Hau bai egoera!

Dena eginda dago! Gero, soilik gauza bat egin ahal dugu: notaren zain gelditu. Baina argi daukadat, gure merituei esker

nire klaseko ehuneko ehunok gainditu dugula.

Maisu eta andereñoi kasurik egin gabe, gure erara dena prestatu dugu. Ez larritu! Ariketa bat edo azterketa erraz bat baino ez baita, eta gainditzea ez da hain zaila. Nik aurtengo bizi izan dut frogari, benetan gehiago da esaten dutena bera dena baino. Animo eta ez izan beldurrik, ahal izango duzue eta!

Testua: Eneritz Larrañaga

Ane Baraiazarra eta Amaïur Holgado ★ pilotariak

“Gure adinetik aurrera gero eta handiagoa da nesken eta mutilen arteko aldea”

Txinpasmendi Larrabetzuko guraso elkarteak multi-kirola egiteko aukera eskaintzen die DBHko ikasleei, eskolaz kanpoko beste ekintza batzuen artean. Eskaintza horren helburua kirolari bultzada txiki bat ematea da. Beste alde batetik, Olarreta pilota elkarteak 6 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin dihardu, baina gazte hauentzat bidea ez da beti erraza izaten, eta are gutxiago neska izanda.

Ane Baraiazarra eta Amaïur Holgado batean zein bestean dabilta, ondo pasatu eta kirola egiteko asmoz. Hala ere, emakumeek kirol batzuetan izaten duten parte hartze eskasak etorkizuna iluntzen die 13 urteko larrabetzuar hauei, izan ere, eurak dira pilota elkarteko emakumezko bakarrak.

Zer dela eta eskolako hormetatik frontoian entrenatzen?

Hasiera batean, ikasgelako mutilekin aritzen ginen pilotan eskolan. Eurek animatu gintuzten entrenamenduetara joatera, eta halaxe egin genuen. Lau neska ibili gara entrenatzen: Irati Etxebarria, Irati Zorrozueta eta geu biok. Baina beste biek utzi egin dute arrazoi bategatik edo bestegatik.

Beste kirol batzuetan aritu zarete inoiz?

Beno, kirola, kirola... Bizikletan ibili-eta bai. Federatuta eta lehiaketetan parte hartzen eskupilotan baino ez gara aritu. Orain multikirola egiten dugu, baina lehiatzeko aukerarik ez. Hori bai, beste kirol batzuk ezagutu ahal izan ditugu.

Zein torneotan hartu duzue parte, pilotari dagokionez?

Eskolarteko eta Txorierriko torneoetan hartu dugu parte...

Eta?

Eskolarteko txapelketan final laurdene-tara heldu gara inoiz. Beste alde batetik, Txorierrikoa guretzat amaitu egin dela uste dugu, aurtun behintzat.

Elkarrekin jokatzen duzue?

Eskolartekoan elkarrekin jokatu dugu aurtun; Txorierrikoan ez. Ane Julen Martinezekin jokatzen dabil, eta ni, berriz, Oier Beldarrainek.

Gaztetxoagoak dira, ezta?

Bai, haur kategorian egon arren alebi-nekin jokatzen dugu.

Zergatik?

Arrazoi bakarra ez dago, baina esan daiteke gure adinetik aurrera gero eta handiagoa dela nesken eta mutilen arteko aldea.

Zelan hartzen zaituzte mutilek orokorrean?

Orokorrean, ondo. Hala ere, badira mutil batzuk, gu neskak izateagatik aurretiaz euren burua irabazletzat hartzen dutenak; beste batzuk, ordea, gure kontra galduz gero txarto sentitzen dira. Baina lagunek zein entrenatzaileak normal tratatzen gaituzte.

Aurrera begira, orduan, zer?

Ez dakigu; ea neska gehiago animatzen den, bestela ezin izango dugu. Beno, entrenamenduekin jarraitzeko aukera izango dugu, baina pena da partidurik jokatu ezin izatea.

Beste kirolen bat praktikatzea pentsatu duzue?

Oso argi daukagu kirola egiten jarraitu nahi dugula. Ni (Ane) futbolekin arituko nintzateke, eta niri (Amaïur) atletismoa gustatzen zait. Baina, egia esan, Larrabetzun ez daukagu aukera handirik. Uritarra futbol



taldearen barruan nesken ekipoa sortzea pentsatu dugu inoiz, baina ez da batere erraza. Gainera, duela urte batzuk triatloi eskola bazegoen, baina orain...

Zer egingo zenukete kirolari bultzadaxo bat emateko herrian?

Jendea kirola egitera animatzea; neskak batez ere.

Testua eta argazkia: Maripi Agirre eta Irati Etxebarria

Asisko Urmeneta euskara lardaskatzen

1965. urtean jaiotako nafar hau Kukuxumusuko aitzindaria izan zen anaiarekin batera. Duela gutxi Txorierriko Politeknika Ikastegian izan genuen Asisko kontu kontari. Horrela, umorea bere armarik baliotsuena izanik, euskarazko hizkera informala sustatzeko hainbat bide daudela erakutsi zigun marrazkigileak.

Nondik datorkizu izena?

Jaiotzean izena hala eman, eta hala dut. Frantzisko de Asis erdarakoa da jatorriz, baina lagun guztiek Asisko esaten zidaten. Euskaratu nuen arren, erdaraz bataiatu ninduten izen guztiz zatarrarekin.

Zer deritzozu Nafarroa, Euskadi mailan, jasaten ari den egoerari?

Nafarroa muturreko karikatura bada ere, Euskadiko beste eskualdeetan ez gaude hobeto: ez politikaren aldetik, ez kulturaren aldetik, ez mugimenduen aldetik. Horregatik, Nafarroakoa ongi datorkigu beste eskualdeetan gertatzen denaren muturreko distortsio gisa ikus dezagun. Funtsean ez dago paradisurik, ez Euskal Herrian, ez Euskal Herrikan kanpo... Oso aro triste eta autoritarioa suertatu zaigula uste dut, eta biziraun behar dugu. Hala ere, aro hobeak etorriko direla pentsatzen dut, apur bat gozatzeko eta ez hainbeste sufritzeko.

Kukuxumusu ideia originala, benetan!

Turistentzako oso oroigarri itsusi eta hortarak (zezenak, toreroak,...) egiten zirela ikusita, diseinu grafikoaren aldetik zerbait modernoagoa landu zitekeela pentsatu genuen, eta hemengo zerbait adierazgarria izan litekeela, gainera. Hasiera batean, kanpotarrei begira jorratu arren proiektua, hemengoek ere erosten zutela konturatu ginen harrituta. Kaletik nire marrazkiak daramatzan norbait ikustek itzel pozten nau.

Irudiek ba al dute helburu zehatzik?

Umorea beti da konsigna nagusia, baita kritika eta parodia ere. Zergatik maskota erosi? Zergatik ezkondu eta gero seme-alabak eka-ri?... Horrelakoak lirakeke gai nagusiak.

Nola hasi zen Mantxut proiektua?

Komiki bat modu sinesgarri zein ulerga-

“Kaletik nire marrazkiak daramatzan norbait ikusteak itzel pozten nau”

“Komiki bat modu sinesgarri zein ulergarrian plazaratzea funtsezkoa da, kaleko jendeak uler dezan”

“Euskara ez da sufritu beharreko zerbait, hau ongi esanda dagoen ala ez beti galdezka”

“Bideak topatu beharko genituzke, ironia, sexu hizkera eta beste-lakoak gustura kontatzeko eta barrutik atera dakigu”

rian plazaratzea funtsezkoa da, kaleko jendeak uler dezan. Erdaraz oso hizkera formala eta landua dugu; euskaraz, aitzitik, hizkerak eskualdeka formaldurik daude. Hori dela eta, gazteok (bera barne, kar, kar, kar) askotan ezin dugu nahi bezala hitz egin, eta erdarara jotzen dugu euskaraz jorratzeko bide anitz izan daitezkeela jakin gabe.

Jon Alonso eta biok kezka bera izanik –ikaragarri maite dugu hizkera informala, baina trabak izaten ditugu aldi berean sinesgarri eta ulergarria izan dadin– elkartu eta Mantxut proiektuan hasi ginen. Gerora, Kike Amonarriz bere umore eta jakinduri soziolinguistikoarekin agertu zen, baita Antton Olariaga ere, besteak beste.

Nola bururatu zitzaizuen Euskaraz lardaskatzeko manierak hitzaldia era jolasgarri eta hezigarrian egitea?

Hitzaldia Kike, Antton eta hirurok ematen dugu. Bakoitzak esparru bat jorratzen du hiz-



kera informalarekin lotuz, entzuleari beste ikuspegi bat eman nahi baitiogu: euskara ez da sufritu beharreko zerbait, hau ongi esanda dagoen ala ez beti galdezka. Edozein hizkuntza normal bezala, esparru batzuk behar ditugula aldarrikatzen dugu. Unibertsitatean, prentsan edo abarretan goi mailako esparrua garatuta dago, baina behe mailakoak izatearen premia daukagu. Gure ustez, bideak topatu beharko genituzke, ironia, sexu hizkera eta bestelakoak gustura kontatzeko eta barrutik atera dakigun. Beraz, antzerki honen atzetik hainbat urtetan ateratako ondorioak azaleratzen dira; proposamen batzuk ematen ditugu, oraindik milaka eta milaka muga gainditzeko ditugula badakigu ere.

Helburua lortu duzue?

Ez, inondik ere ez. Hau guztia normaltzen hasteko komunikabideez baliatu beharko genuke. Liburu bat kaleratzea ez da konponbidea sozializatzen ez baita.

Alderantziz, Chiquito de la Calzada gisan joan behar da, izan ere, bonbardaketaren ondorioz berak esaten zituen pitokeria guztiak gureganatu genituen. Ildo honetan, hiru aldiz egin dugu proposamena ETBn, normalizazioaren bidea jorratzeko.

Sakeleko telefonoen euskara hiztegia kaleratu zenuten Durangoko azokan...

Oso lan polita izan zen. Ikastolako ikasleek beraiek eskatu zuten sms-ak elkarri bidaltzeko orduan erdarara jotzen baitzuten. Hori ez ba bekatua, baina, adibidez, tokiko hizkera erabiliz fanzine bat Donibane Garazi zein Zamudion saldu nahi badugu kontsentsu batera ailegatu beharko dugu denon artean. Guk ez dugu biderik markatzen; hizkuntza fenomeno malgua dela erakutsi nahi izan dugu.

Zelan bururatu zitzaizuen Gartxot lana?

Arturo Campion euskaltegiak idazle honen zenbait testu komikira egokitzea proposatu zigun, bere lana ezagutarazteko asmoz. Normalean halakoren kontra egoten naiz arlo pedagogikoak beldur apur bat ematen didalako; izan ere, komikiak ongi pasatzeko direla uste dut... Hala ere, polita izan zen. Aspaldian argitaratutako Trango liburuagatik saria jaso genuen Kuban eta Korsikan, eta horrek ikaragarri poztu gintuen. Markok Pedro Mari bigarren liburua atera, eta hirugarrena zuri



Ikusmin handia soru zuen Asiskoren hitzaldiak Politeknikan.

beltzean egitea pentsatu genuen, genero underground-a berpizteko. Euskaltegiak ezin zituen ez gastu guztiak bere gain hartu, Argia argitaletxera jo genuen.

Jokin Larrea marrazkilariarekin batera egin dugu lana Marko eta biok. Gainera, Europa mailan ere erakutsi dugu... Angulemako Nazioarteko Saloian hainbat kontaktu egin eta, euskarazko bertsioa urte eta erdian babestu ondoren, frantseza eta espainolera itzuliko da, ziur asko. Japonieraz ere ateratzea baliteke.


Kontuak kantu Igor Elorza idazlearekin baterako lana, azkenik harreman platonikoa egi bihurtu zen. Nolakoa esperientzia?

Argitaletxeok berarekin lan egiteko deitzaiek ikaragarri poztu ninduen. Batzuetan holako maitasun platonikoa izatea suertatzen zaigu: norbaiten lana ezagutu, baina bere burua ez, eta halako batean zure lanaz interesatuta deitzen zaitu... Oso esperientzia polita izan da gure artean feeling ona egon baita. Azalak nahiko ondo gelditu dira, nire ustez. Egia esan, denbora gutxi izan genuen dena nahi bezala lantzeko... Hala eta guztiz ere, Igorrekin egindako lana da daukadan oroitza onena.

*Testua eta argazkiak: Leire Palacios
(Politeknika ikastegia Txorierriko ikaslea)*

Mikel Artetxe, Euskaltel-Euskadi taldearen txirrindularia

“Txirrindulariok ohituta gagoz sufritzen”



Testua: Itxaso Marina

Argazkiak: Euskaltel-Euskadi Fundazioa

Frantziako Tourrera joatekoa zan, baina bizikletatik jausi zan eta ziur asko ezin izango dau lasterketa honetan parte hartu. Halanda guzti be, besoaren haustura ia-ia osatuta, entrenamenduetara itzuli da Larrabetzuko gaztea, berak dinoen legez “Tourraz ganera badagoz beste karrera batzuk, eta etorkizunari begiratu behar jako, gehiegi larritu barik” . Aikor! aldizkariak beragaz berba egiteko aukera izan dau.

Dezepzionatuta?

Ez, gauzak zelan datozen, halan hartu behar dira. Ganera, ez dakit erabat erreku-peratuta egongo nazen Tourrerako, eta beharbada ez joatea izango da onena. Dana dala, entrenamenduakaz hasi naz barriro: beste lasterketa batzuk be bada-goz, eta horreetan parte hartzen ahalegin-duko naz.

Entrenamenduetan gogor ibiliko zinan, ezta?

Egia esan, ez dot lasterketa askotan parte hartu, baina azken hilabeteotan nahiko entrenamendu gogorrek egiten ibili naz Tourra prestatzeko: batzuk 6 edo 7 ordukoak. Baina, Laudioko lasterketan jausi eta besoa apurtzeak ez deust onik egin... Bat-batean dana pikutara joan leitekela erakusten dau horrek...

Beno, eta zelan ikusten dozu lasterketa?

Oso Tour gogorra da, baina talde osoa ahalik eta posturik onena lortzen saiatuko

da. Aurreko urteetan nahiko ondo ibili gara, eta aurtien Iban Mayo edo Haimar Zubeldia podiumean egoteko itxaropena dugu.

Iaz Tourrean izan zinan. Zelan gogoratzten dozu esperientzia?

Tour osoan nahiko ondo ikusi neban neure burua, eta pozik gelditu nintzan. Ganera, etapa asko Pirinioetan izan ziran, eta bertara Euskal Herriko jente asko batu zan. Horrek motibazio handia emoten deus.

*“Topera ibiltzen zara
Tourreko etapa
guztietan, ez dago
atseden hartzeko
momenturik”*

Zein izan zan momenturik gogorrena?

Azken astea, beharbada. Izan be, hiru aste dira eta nekearen ondorioz nahiko justu heltzen zara. Topera ibiltzen zara etapa guztietan, ez dago atseden hartzeko momenturik.

Eta onena?

Pirinioetan. Aldapan gora jentetza handia izaten da animetan, eta momentu batzuetan hipnotizatuta egongo bazina legez ibiltzen zara. Sentsazio atsegina da.

Zelako giroa dago txirrindularien artean?

Beste lasterketetan izaten danaren antzekoa, urtean zehar alkar ikusten dogu eta. Dana dala, etapa amaitu ostean ez daukagu hartu-emon handirik geure artean. Beste alde batetik, Frantziako Tourraren eta beste lasterketen arteko desbaidintasunik handiena izaten da urteretan eta helmugetan jentetza handia ibiltzen dala autografo eske.

**Zutaz arituko gara apur bat orain. Nondik jatortzu bizikletaz ibilteko zale-
tasuna?**

Ba, gazte-gazterik hasi nintzan. Txorierri ekipoa 14 urteagaz sartu, eta handik Zornotza-Amorebietara joan nintzan. Geroago, Beasaingo Iberdrola eta Olarra Ercoreca taldeetan emon nituan afizionatuetoako urteak. Eta orain dala 6 urte

*“Euskaltel-Euskadin
egotea betiko
ametsa da,
munduko talderik
oneetariko bat baita”*

profesioaletara pasatu nintzan, Euskaltel-Euskadi taldera, hain zuzen be.

Eta zer da zuretzat talde honetan egotea?

Betiko ametsa. Korritzen hasten zara-nean profesional mailara ailegatzeko itxaropena dozu, eta Euskaltel-Euskadi talderik onenetariko bat da Estatu eta mundu mailan. Ganera, bat nator taldearen filosofiagaz: taldea hemengo txirrindulariakaz osatzea. Estatuko beste herri batzuetan elkarte autonomoak be hasi dira halakoak bultzatzen, eta kirol zein beste arloen etorkizuna hortik doala uste dot.

Baina filosofia horrek taldeari mina egin ahal deitso...

Nire iritziz, ez. Geure taldean garrantzitsutzat jotzen dogu Euskal Herrikoak izatea, eta beste berezitasun bat be badaukagu: euskara. Gauza asko daukaguz geure alde; kontra Euskal Herria oso handia ez dala, besterik ez. Halan be, maila handiko kirolariak daukaguz, geure burua defenditzeko beste.

Zelan ikusten dozu zeure burua talde barruan?

Ondo, izan be, bakoitzak argi dauka zein dan bere lana. Badagoz goi mailako txirrindulariak, lasterketetan euren balioa erakutsi dabenak; eta badagoz beste batzuk euren



Fitxa

Izena: Mikel Artetxe Gezuraga

Jaioteguna: 1976/09/24

Jaioterria: Larrabetzu

Taldea: Euskaltel-Euskadi (1999)

Garaipenak: 4: Troféu Joaquim Agostinhoren bosgarren etapan (2002); Andaluziako itzulia (2001); GP Jornal de Noticiaseko lehenengo eta laugarren etapan (2000).

Bira handiak: 10garren, Frantziako Tourreko bigarren etapan (2003); 10garren, Espainiara itzuliaren hamaseigarren etapan (2002).

“Txirrindularioi dopinaren zama eroatea tokatu jaku”

Gaiaz aldatuz, dopina dala eta, txirrindularioi kalte egin gura jatzuela emoten dau...

Analisiak egitea onartu eta beharrezkoztat jotzen dogu txirrindularioiok. Are gehiago, praktika hau onartu dauen kirol bakarra txirrindularitza dala esango neuke. Bai, gutariko asko zigortu dabe, baina estatistikei erreparatuta, gurean beste kiroletan baino positibo gitxiago ateratzen dirala ikusi geinke. Halan be, komunikabideetan gure emaitzek oihartzun handiagoa izaten dabe. Ez dakit zergaitik, baina txirrindularioi zama hori eroatea tokatu jaku.

Zelakoa da egun bat txirrindulari baten bizitzan?

Egun guztiak oso antzekoak izaten dira; desbardintasun bakarra izan leike gehiago edo gitxiago entrenatzea.

Goizeko 10ak aldera bizikleta hartu eta pedalei eragiten deustet ordu bian gitxienez. Tarte horretan 60 bat kilometro egiten dira. Eta hortik aurrera beharrezkoa dana... Hau da, entrenamendu fase gogorrean zagozenez, 7 ordu egin zeinkez bizikleta ganean, lasterketetan ondo egoteko gero. Arrastiz, barriz, atsedean hartzen dot.

Eta nondik ibiltzen zara?

Mungia eta Gernika aldetik, batez be. Trafikoaren arazoa badakigu zelan dagoen... Dana dala, korridorea zabaldu zane-tik egoera nahikotxu hobetu da Txorierrin.

Errepidean segurtasun aldetik, zer egin da eta zer dago egiteko oraindino txirrindularien alde, zure ustez?

Egin, gauza asko egin dira, eta, batez



Mikelek bere lehendabiziko garaipena Portugalen lortu eban 2000. urtean. Hau da bizi izan duen momenturik onena.

balioa demostratu bai, baina ez garaipena lortzeko, ezpada lana ondo egitearren.

Urte honeetan lasterketa pilo baten hartu dozu parte. Zein gogoratzen dozu bereziki?

Munduko Koparen lasterketak, gehienbat. Jentetza handia joaten da horreek ikustera, eta karrera beste era baten bizitzen da. Gero, jakina, oso gogorak dira, kilometro askokoak... Baina marka izten dabe zugar. Horreez ganera, Paris-Roubaix karrera be gogoratzen dot bereziki. Kilometro asko egin behar dira galtzadarrien artean, eta horrek bestelako zailtasuna eta gogortasuna emoten deustso lasterketari.

Zure ibilbideari jagokonez, zein izan da bizi izan dozun momenturik gogorrena?

Hotz handia dagonean asko sufritzen da. Momentu horreek txarrak izaten dira benetan. Fisikoki atzerago edo aurrerago egon ahal zara, baina hotza...

Lasterketaren baten erretiratzeko gogorik izan dozu inoiz?

Askotan pentsatzen dozu, esaterako, Laudion jausi nintzanean. Baina azkenean aurrera jarraitzen dozu. Eta begira! Besoa apurtuta lasterketa amaitu neban... Egon be, ohituta gagoz sufritzen!

Eta momenturik onena?

2000an Portugalen profesionaletan lortutako lehenengo garaipena. Aurreko urtean ez neban oso ondo pasatu sorbaldako lesino bategaitik, eta ez nekien sasoi onean egongo nintzan... Garaipen horrek, beraz, poztasun handia emon eustan.

Zein probatan sentitzen zara erosoena?

Erdi-mailako etapa baten, hau da, eremua ez oso aldapatsua ez oso laua danean. Erlojupeko karreran be ondo ikusten dot neure burua. Altuera eta pisu handiko txirrindularia ez nazenez, zirkuitu lauetan ez naz hain ondo ibiltzen... Dana dala, orokorrean proba guztietan moldatzen naiz ondo.



Taldearekin Frantziako Tourraren aurkezpenean, iaz.

“Txirridularitza ahalik eta urterik gehien egin nahiko neukez”

be, jentea kontzientziatzen saiatu dira. Adibidez, orain arte txirrindulari bi binaka joatea debekatuta egoan, eta orain legez onartu da. Ganera, hainbat zirkulazio arau atara dira, nahiz eta gidariak gehienetan bete ez...

Beste alde batetik, errepideak autoentzatzat egiten dira: arinak, bazterbide txikikoak... Eta hori hobetu leiteke. Halan be, beste autoak txirrindulariok eta oinezkoak errespetuz tratatzeko lan egiten jarraitu beharko litzake, nire ustez.

Errepideetan bizikletetarako bide ipin-tea beharrezkotzat jotzen dozu?

Ez. Errepideak bazterbide egokia (1 m eta 50 cm) izanez gero, nahikoa da, nire ustez.

Dana dala, zuek be batzuetan ez zarie batere zuhurrak.

Bai, onartzen dot. Baina ondotxo daki-gu errepidea arriskutsua dana, eta gauzak ez doguz pentsatu barik egiten. Gidariak, barriz, errepidea euren dala uste dabe, txirrindulariok enbarazu baino ez dogula egiten... Eta ez da holan.

Aizu, exijentzia handiko kirola da zuena...

Bai, baina kirol asko dira gogorrak. Txirrindularitzan normalean ez dogu lesino txarrik izaten... Beste alde batetik, urtean zehar ez dogu gauzez disfrutatzeko aukera handirik. Hori izango litzake negatiboen, nire iritziz. Dana dala, oporretan aprobetxatzen dogu gauza horreek guztiak egiteko.



Mikelek iaz nahiko ondo ikusi eban bere burua Frantziako Tourrean. Pozik gelditu zan, beraz.

Eta zure adineko gazteak egiten dituen gauza horreek guztiak faltan botako dozuz, ezta?

Ez. Izan be, azkenean ohitura hartu eta askotan gogorik be ez dozu eukiten. Lehen esan dodan legez, neguan –karre-rarik ez dagoenean– aprobetxatzen dot.

Aurten Loroñoren Oroimenezko V. Lasterketa egin da Larrabetzun, Mikel Artetxe kirol elkarteak antolatuta. Zelako bilakaera izan dau karrerak urte honeetan, zure ustez?

Hasiera baten Euskadi mailan egiten zan, afizionatu kategorian hain zuzen be. Azkeneko urte honeetan, oster, Estatu mailako karrera bihurtu da, eta kanpoko hainbat taldek hartzen dabe parte bertan. Nahiko zita garrantzitsua da Euskadiko kirol egutegian. Bilakaera oso positiboa da, beraz. Ganera, herriko jente askok laguntzen dau, eta hori ezinbestekoa da, nire ustez.

Txorierrin badago bizikletarako zaletasunik?

Gero eta gehiago. Ez lehiaketa mailan, baina bai zikloturismoari jagokonez. Jente asko ikusten da Txorierri osoan bizikleta ganean. Zaletasuna berreskuratuz goaz, apurka-apurka.

Zelako helburuak daukazuz etorkizunari begira?

Txirrindularitzan ahalik eta urterik gehien egin nahiko neukez. Izan be, izugarri gustatzen jat kirol hau, eta entrenamenduak egitea ez jat batere kostaten. Ganera, sasoi onean egonda...

Eta txirrindularitzatik kanpo?

Ez dot asko pentsatu horretan... Hizkuntzak ikasi edo beste ikasketa batzuk egingo neukez, beharbada... Egia esan, ez daukat batere argi oraindino.

Aberekin, euskal zezenak mundua ernaltzen

Parke Teknologikoan kokatutako enpresa honek azken teknologiak ezarri zituen 80. hamarkadan esne-behiak zein okela-behiak hobetzeko asmoz, eta gaur egun Aberekin maila gorenean dabil mundu osoan. Aikor!ek irakurleon jakin-mina asetzeko bertara joan da intseminazio artifizialaren prozedura ezagutarazteko. Jose Antonio Aviok, enpresako zuzendariak, ezin hobeto azaldu digu.

Zelan sortu zen Aberekin?

Hasieran etxalde hau Bizkaiko Foru Aldundiarena zen, baina 80. hamarkadan Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Aldundiek zentro bakarra osatzea erabaki zuten hementxe bertan. Ordudanik Aberekin elkarte anonimoa da, eta aipatutako hiru Foru Aldundiez gain, Eusko Jaurlaritza, Parke Teknologikoa eta Euskal Herriko *hosting-fri-sona* behien abeltzainen elkarteak dira akziodunak. Beranduago beste elkarte batzuk ere sartu dira akziodunen taldera.

Zer behar da behi onak edukitzeko?

Lehenengo eta behin ganadua osasuntsu mantendu, gero ondo gobernatu, horren ostean elikadura ona eman eta, azkenik, genetika hobetu. Guk azken esparru hori lantzen dugu. Beraz, gure helburua genetika-gaitasun ona duten behiak lortzea da, gainerako baldintzak egokiak direnean ahalik eta ekoizpenik onena lortzeko.

Zelakoa izan da esne-behien ekoizpenaren eboluzioa?

Lehen behi batek 4.000 litro ematen zituen urtero, 305 egun probetxagarrietan, eta gaur egun 8.500 litro ematen dituzte bataz beste. Hala ere, esan beharra dago, behi batzuek 12.000 litro ematen dituztela urteko, eta banaka batzuek baita 16.000 litro ere.

Beraz, zuen lana zezen egokien hazia prestatzea da. Zelakoa da prozedura?

Munduko behirik onenak bilatzen ditugu eta, gero, euren enbrioiak erosten ditugu. Bakoitzetik lau enbrioi erosten ditugu zekor bat lortzeko. Lau enbrioi horietatik 2 izango dira emankor eta bietatik bat arra, guri interesatzen zaiguna hain zuzen ere. Kontuan hartu



Behi batek 8.500 litro esne ematen ditu bataz beste urtero.

behar da enbrioi bakoitzak 2.000 euro inguru balio duela, zehatzago izateko 250.000 pezetatik 350.000 pezetara bitartean. Enbrioi horiek gure kideen behiengan ezartzen dira eta jaio eta 4 hilabetera hona ekartzen ditugu.

Zenbat zekor daukazue?

Momentu honetan 265 dauzkagu plantillan eta 12 edo 15 dira titularrak. Plantilla hori eduki ahal izateko urtero 30 edo 35 zekor berri sartu behar ditugu eta plantillako batek titular batek baino ezaugarri hobeak ematen dituenen ordezkatu egiten dugu. Dena dela, zekor batek 12 edo 14 hilabetera hazia ematen hasten den arren, frogak eta testak gainditzeko ditueneko 4 urte izango ditu.

Azkenean 10 urterekin, gutxi gorabehera plantillatik erretiratu egingo dugu.

Zertan datza froga hori?

Esne kontrola ezarrita daukaten kideen behien %20 erabiltzen dugu frogak egiteko. Hau da, behi horiei zekor berrien hazia ezartzen zaie ikusteko euren txala ama baino hobe ote den. Beraz, alabak amaren ezaugarriak hobetzen baditu zekorra baliogarria izango da. Orduan, hasi zarenetik txahala esnea ematen hasten den arte 4 urte pasako dira.

Test horietan zer neurtzen da?

Esne-behiengan, batez ere, esne ekoizpena, erditze zailtasuna eta esnearen kalita-

tea neurtzen ditugu. Okela-behiengan, berriz, animaliaren morfologia hartzen da kontuan hasieran eta, horren ostean, jaten duenetik zenbat bihurtzen duen okela.

Lehen zezena eramaten zen baserrietara...

Bai, baina ezin zen eramanez egokiena, agian Danimarkan zegoelako. Esan beharrik ere ez dago betidanik erabili izan den metodoa, zelan ez, estaltze naturala izan dela eta metodo horren ernaltze-eraginkortasuna %92 da. Gerorago, hazia hoztu eta behiari ezartzen zitzaien, eta ernaltze portzentaia %80 zen, baina 48 ordu baino ez zuen irauten. Azkenik 70. hamarkadan nitrogeno likidoaren teknika garatu zen eta ernaltze portzentaia %55etik %65era bitartekoa bada ere, garraioak eta mantenimenduak ez du arazorik sortzen.

Esaiguzue, bada, zertan datzan nitrogeno likidoaren teknika hori.

Ba lehenengo eta behin magina artifizial bat jarrita zezenei hazia hartzen zaie. Bataz beste, asteen egun bitan hartzen zaie eta egun bakoitzean bi aldiz ordu bateko tartearekin. Hartualdi bakoitzetik 300 bat dosi ateratzen dira -kasu batzuetan 1.000 ere izan daitezke-; beraz, asteen 1.200 dosi. Dosi bakoitzean 30.000.000 espermatozoide daude eta desioztutakoan erdiak gelditzen dira. Hartutako dosiei azterketak egin eta nitrogeno likidoan gordetzen dira, zero azpitik 196 °C-tan, eta horrela mantenduko dira behiei ezarri arte.



Aberekinen 265 zekor dauzkate plantilan. Haietatik 12 edo 15 titularrak dira.

Eta, zein da zuen merkatua?

Gure merkatua mundua da, 44 estatutara esportatu izan baitugu. Hala ere merkatu finko bat daukagu eta estatu espainiarraz gain Alemania, Brasil, Amerikako Estatu Batuak, Portugal, Frantzia, Argentina, Mexiko, Italia, Holanda, Belgika, Kolonbia, Txile, Kanada edota Australia aipa ditzakegu, besteak beste.

Zer ikerketa lerroak jorratzen ari zarete?

Elkartze edo akoplamendu programa

bat garatu dugu, hau da, behi baten datuak hartuta guk zezen egokiena jartzen dugu, baserritarrak hobetu nahi dituen ezaugarriak lantzeko. Horrela bada, behi batentzat zezen bat egokiena den bitartean beste batentzat besteren bat izango da. Adibide gisa, behia amaberria bada erditze erraza duen zezen baten hazia ezarriko zaio, eta amaberria ez bada eta esne kantitatea hobetu gura bada horretarako egokiago den beste zezen batena ezarriko zaio.

“Duintasuna berreskuratzen laguntzen diegu Pereirako emakumeei”

Orain dela gutxi, Gloria Patricia Mesa moja kolonbiarra izan dugu Txorierrin, Behar-Bidasoa gobernuz kanpoko erakundearen Lezamako ordezkariak gonbidatuta. Gloria Pasionista Ahizpen kongregazioan dago. Pereira herrian emakumeentzako abegi-etxea martxan jarri dute, Behar Bidasoaren laguntzarekin. Euskal Herrian izan den bitartean, eta hainbat erakunde eta instituziorekin bilerak egin ditu proiektuaren gorabeherak azaltzeko. Aikor!rekin ere solasean egon da.

Lehenengo eta behin, azal diezaguzu zein den Pereiraren egoera soziala.

Kolonbiako gatazka armatuaren ondorioz, indigena askok landa utzi eta hirira etortzen dira, masifikazio-arazoak sortuz. Pereiran, konkretuki, txabolak eraiki edota biztanleak birkokatzeko Udalak egindako etxetxoetara sartzen dira; etxe horiek 30 metro karratu dituzte, eta bertan 12 bat pertsona bizi dira. Beraz, etxe eta auzoen kopurua etenik gabe handituz doa; baina ekonomiak, berriz, atzera egiten du.

Jendea egoera penagarrian bizi da

“Familiako buruak emakumeak dira, eta euren kargupean 4 seme-alaba izaten dituzte, gutxienez”

“Umeek kalean lo egiten dute zaku baten barruan, drogak eta kola hartzen dituzte, jatetxetan eskean ibiltzen dira...”

bertan: ez dago lanik, ez jatekorik, ez dute edateko urik, lapurretan egiten dute...

Zein da emakumeen egoera?

Kasu gehienetan, familiako buruak emakumeak dira, eta euren kargupean 4 seme-alaba izaten dituzte, gutxienez. Bortxaketen ondorioz edota prostituzioa lanbidetzat dutelako, haurdun gelditzen dira oso gazteak izanda. Gainera, ez dute bikote egonkorrik, eta eskolagabekoak direnez ezin dute lanik aurkitu. Gure kongregazioak Santa Maria Goretti zentroa martxan jarri du Pereiran. Bertan lanbide bat irakasteaz gain, duintasuna berreskuratzen laguntzen zaie emakumeei.

Zelango tailerrak daude zentroan?

Zapatagintza, ebaketa eta jantzigintza, edergintza, zeramika eta okintza tailerrak ditugu momentu honetan. Emakumeak lan mundura bideratzea dugu helburu, euren familia mantendu ahal izateko. Eta emakume batzuek lortu dute, hau da, inoren konfurako langileak dira edo euren negozio txikia jarri dute. Beste alde batetik, emakumeei zuzenduta egon arren, ume nagusi batzuek ere parte hartzen dute tailerrean...

Umeen egoera ez da hobea izango...

Ama lanean dagoen bitartean alaba



“Bekak ematen dizkiegu umeei uniformeak, koadernoak eta abarreko gauzak erosi eta eskolara joan ahal izateko”

nagusiak txikiak zaintzen ditu. Aitaordearen tratu txarrak direla-eta, askok ihes egiten dute etxetik. Umeek kalean lo egiten dute zaku baten barruan, drogak eta kola hartzen dituzte, jatetxetan eskean ibiltzen dira, lapurretan egiten dute... Gatazka armatuan parte hartzeko “adina” dutenean hartzen dituzte... Eta ezinezkoa da hortik ateratzea...

Demagun ume batek ihes egitea lortzen duela, aurkituz gero...

Hil egingo dute.

Eta eskola?

Normalean ez dira eskolara joaten, eskola-materialik ez dutelako edota ezin diotelako ordutegiari eutsi, elikadura ezaren ondorioz. Gainera, bi ikastetxe egon arren, gelak oso txikiak dira eta umeek bi



Emakumeek ez ezik umeek ere etorkizuna izateko lan egiten dute Santa Maria Goretti abesio etxean”

txandatan ikasten dute. Beste alde batetik, institutua oso urrun dago, eta autobusa ordaintzeko dirurik (800 peso) ez badute 35 minutu oinez egin behar izaten dituzte batxilergoko ikasleek.

Guk bekak ematen dizkiegu uniformeak, koadernoak eta abarreko gauzak erosi eta eskolara joan ahal izateko. Halaber, liburutegi bat daukagu zentroan eta bertan etxerako lanak kontsulta ditzakete.

Lehen aipatu duzu elikadura eza...

Oso arazo larria da. Pereira etorri ginean tailerrak egitea baino ez genuen helburu, baina umeen desnutrizioa ikusita, jantoki bat zabaltzea erabaki genuen. Euren adina kontuan hartuta, nutrizio-plan bat egiten zaio ume bakoitzari, osasuna berreskura dezaten pixkanaka-pixkanaka. Dena dela, umeek ez ezik ama berriek eta aitita-amama batzuek ere otorduak egiten dituzte bertan.

Zelan dago sanitatea?

Sanitatea ordaindu egin behar da, eta ez dute dirurik... Behartsuenentzako txartel bat badago, baina guztiek ezin dute eskuratu baldintza batzuk bete behar baitira: amak paperak izatea eta umeak erre-gistro zibilean egotea.

Osasunari dagokionez, jarraipena ere egiten diegu umei gure zentroan, eta zainketa berezirik behar izanez gero txartela ematen zaie osasun-zentroan medikoarekin egoteko.

Abegi-etxean ere beste ekintza batzuk eskaintzen dituzue...

Bai. Ama klasean dagoen bitartean umeak zainduta egoteko ludoteka bat jarri dugu zentroan. Era berean, hitzaldi-aretoa eta umeentzako parkea ditugu. Umeek egun osoa parkean eman nahiko lukete, izan ere, jolasteko duten leku bakarra



Zamudioko andreekin herrian emandako hitzaldi batean.

gurea da. Beste alde batetik, dantza eta perkusio taldeak ere martxan jarri ditugu.

Zenbat langile zaudete bertan?

Sei; janari-erabiltzaileez gain, beste sei langilek dihardugu zentroan. Halaber, boluntario batzuek bazkaltzen laguntzen diete umei.

Proiektua aurrera eramateko laguntzarik?

Abegi-etxea bi fasetan eraikin zen. Lehengoa egiteko Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza jaso genuen, eta bigarrena Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu zuen. Pereirako Udalak, berriz, jantokia subentzionatzen du.

Bestalde, proiektuak aurrera egiten du Behar-Bidasoa GKE-ren laguntzari esker. Horrela, bada, hasieratik eurek ordaindu dute langile eta irakasleen soldata, baita instituzioaren mantenamendua ere.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen erronkak?

Alde batetik, lokal bat erosi nahi dugu erdialdean, tailerretan egiten ditugun zapatak, arropa eta abarreko gauzak bertan saltzeko. Horrezaz gainera, negozioa jarri nahi duten ikasleei laguntzeko mikrokredituak sortzea pentsatu dugu. Emakume horiek ez dute mailegu arrunt bat lortzeko aukerarik, eta, horregatik, diru-fondo bat osatu nahi dugu hemendik urte amaierara. Horrela, bada, enpresa hori martxan jartzeko behar duen dirua emango zaio bakoitzari.

Beste alde batetik, unibertsitatean ikasteko bekak ere bultzatu nahi ditugu. Gaur egun, gure 4 gazte unibertsitatean dabilta, baina guztiek ez dute aukera hori... Guk beste bizitza bat posiblea dela erakutsi nahi diegu.

Jaiak aurrera jarraitzen dau Derion

Santiago, Santa Ana eta San Inazio egunak izango dira hemendik gitarra, eta Derioko Santiago Jai Batzordeak ekitaldi sorta zabala antolatu dau. Uztailaren 24tik 31ra bitartean, beraz, herrian ez da aukera faltarik izango jaiez gozatzeko.



Umeentzako jolasak be ez dira faltako.

Egitaraua

Uztailak 24, zapatua

17:00etan Txupinazoa eta jaien hasikera. Ondoren, kalejira txistulariakaz, San Kristobal eleiza burdi ganean doala.

17:00etan Umeentzako parkea eta quadak.

20:00etan Tortilla txapelketa

22:00etan Gau dantza Trikitio taldeagaz, eta disko festa

Uztailak 25, domeka (Santiago)

12:30ean Meza Nagusia

13:30ean Herri kirolak (harri-zulatzailak)

14:30ean Sukalki txapelketa.

19:00etan Dantza erakustaldia, Derioko Lainomendi dantza taldeagaz

21:00etan Indarra taldea

Uztailak 26, astelehena (Santa Ana)

12:30ean Meza Nagusia herrian hil diran guztien alde

13:15ean Triki poteoa

Uztailak 30, barikua

19:30ean Kalejira.

20:00etan Txitxi burrunzti eta txosnen irekiera

00:00etan Gau dantza, Urgabe taldeagaz

04:00etan Diskoteka Txitxo Mix.

Uztailak 31, zapatua (San Inazio)

12:00etan Meza Nagusia San Inazioren omenez.

13:00etan Derioko Lainomendi dantza taldea eta nazioarteko dantzen ikuskizuna (Serbiako taldea)

14:30ean Herri bazkaria, trikiti doinuagaz.

19:30ean Idi probak.

23:00etan Gau dantza Amaiur taldeagaz, eta diskoteka.



Eta txosnan dana prest!



Perurenak eta semeak 230 kiloko harriak altxatu ebezan iaz.



Ezetz sagarra harrapatu!



Ba, neuk bai.



San Kristobal eleiza burdin ganean.



Tortilla prestatzen lagunduko deuskuzue?

Zamudio motorrak berotzen hasi da

Txorierrri Motor Sport elkarteak erregistratzeko tramiteak orain hilabete bi hasi ziren egiten, baina taldea ez da berria: auto eta motorretarako zaletasunak 1994an batu zituen taldekideak. Harrezkero, ahal izan duten karrera guztietan egon dira, partehartzaile nahiz ikusle gisa. Gaur egun, zortzi lagunek osatzen dute taldea –guztiak gizonezkoak–, eta txorierritarrei motor mundua hurbiltzea dute helburu. Aikor! aldizkaria Luis Mari Heredero presidentearekin eta Luis Angel Garai diruzainarekin izan da solasean.



Beraz, ez zarete berriak motor munduan...

Ez, beti gustatu zaigu, eta hainbat karrera eta munduko txapelketetan ibili gara. Gainera, gutariko bostek halako lasterketetan hartzen dute parte: Iñigok trialean; Ibonek, mendi igoeretan, Copa Turbo auto batekin; Juan Carlosek, PRM batekin (motoaren motorra duen autoa); Josetxuk, Saxo batekin, eta Josuk formula batekin. Eta horrek motor munduarekin harreman estuagoa izatera bultzatu gaitu.

Zergatik erabaki duzue elkarteak orain erregistratzea?

Abantaila batzuk izateko. Hau oso kirol garestia da, ez da diru laguntzarik izaten, eta taldeko pilotuei gastuak ordaintzen laguntzeko ideia ona zela pentsatu genuen. Lasterketa batera joaten garen bakoitzean geure poltsikotik ordaindu behar izaten dugu bidaia; beste modu honetan, berriz, beste elkarteek dituzten abantailak geuk ere

eskuratu ahal izango ditugu. Beste alde batetik, motor munduarekin zer ikusia duten ekitaldiak Zamudion bultzatzeko asmoa daukagu, baita bazkide berriak erakartzeko ere.

Hartarako, zelango ekintzak antolatzen dituzue?

Zirkulazio arloko hezkuntza bultzatzen dugu eta, gainera, motordun ibilgailuen erakustaldiak antolatzen ditugu. Era horretan nahi dugu Txorierrin jendeak kirol hau ezagutu eta errespetua izan dezan.

Badago Txorierrin motor mundurako zaletasunik, zuen ustez?

Bai, eta horregatik uste dugu ez dugula arazorik edukiko bazkide gehiago izateko. Izan ere, Zamudion antolatutako ekitaldi batera 40 lagun batu gara... Beste alde batetik, Txorierrri eta ondoko herrietako pilotuak ezagutzen ditugu, eta eurak ere geure elkartera etortzea nahi dugu.

Gainera, posible bada, Bartzelona, Jarama edo beste leku batzuetara bidaiak antolatzeko asmoa daukagu etorkizunean, eta halako gauzek ere jendea animatzen dute.

Zein lasterketetan hartu duzue parte?

Juan Carlosek, Ibonek eta Josetxuk mendi igoera askotan korritu dute: Larrainetako igoeran, San Cosmekoan,

Jaizkibelekoan eta Muniketakoan, besteak beste. Eta motorrari dagokionez, Euskadi eta Espainiako trial-txapelketan hartu du parte Iñigok; Juan Carlosek lehenengo hamar postuetan sailkatzea lortu zuen iaz. Autoz korritzen zuen lehenengo aldia izan zen, orain gutxi arte moto txapelketetan baino ez zen lehiatzen eta –Challinger Yamaha eta Racer, euren artean–.

Kirol hau oso garestia dela aipatu duzue lehen. Zenbat ordaindu behar da mendi igoera batean parte hartzeko?

Izena emateak 150 edo 200 euro inguru balio du. Horrez gainera, bidaia, gasolina, autoa, gurpilak, asistentzia eta beste gauza batzuk ordaindu behar dira. Eta Federazioak, noski, kobratu egiten dizu federatuta egoteagatik...

Dirulaguntzarik?

Aurten subentzio bat jaso dugu Udaletik. Gainera lokal bat eman, eta edozein ekitaldi antolatzen lagunduko digutela esan digute.

Eta zelako ezaugarriak izan behar ditu autoak?

Bizkaiko Federazioak eskatzen dituenak. Hainbat kategoria daude, eta autoaren zilindrada eta ezaugarriak kontuan hartuta sartuko zara haietako batean. Trialean, berriz, kategoria bat baino ez dago.

*“Motor munduarekin
zer ikusia duten
ekitaldiak Zamudion
bultzatzeko asmoa
daukagu”*

*“Auto bat 30.000
eurotan eros dezakezu,
baina egokitze
lanetan 60.000 euro
gasta ditzakezu gero”*

Autoei hainbat hobekuntza egiten zaizkie ahalik eta potentziarik handiena izateko...

Bai, eta muga diruak ipintzen du. Auto bat 30.000 eurotan eros dezakezu, baina egokitze lanetan 60.000 euro gasta ditzakezu gero. Hobekuntza pilo bat egin ahal zaie autoei: motorra, suspentsioa, direkzioa...

Afizionatuetan korritzen duzue, profesionaletan egoteko asmorik?

Oso zaila da. Goi mailako lasterketa batean parte hartzeko, dirutza handia behar da, eta gure pilotuek ez dute halako gastu handiak egiteko modurik, ezta pilotu profesionalekin lehiatzeko prestakuntzarik ere; oraindik ez, behinik behin.

Babesleei dagokienez, bakoitzak nola edo hala lortzen du dirua: autoetan publizitatea jarritz, dirulaguntza txikiak han eta hemen eskuratuz...

Zer kontatu ahal diguzue erregelamenduari buruz?

Arau orokorrak egon badaude, baina karrera bakoitzean Federazioko ordezkari batek arau bereziak ematen dizkie pilotuari eta laguntzaileari.

Karrera egun osoan egiten da. Autoek erregelamenduzko baldintzak betetzen dituzten egiaztatu ondoren, entrenamendua egiteko karrera bat izaten da; honekin ez da punturik lortzen. Gero, mendi igoera bi egin, eta bietatik markarik onena hartzen da sailkapen orokorra egiteko. Azkenean, autoei berriro egiten zaizkie egiaztapenak, hasieran bezala ote dauden ikusteko.

Eta karrera egin baino lehen autoa probatu behar da, non egiten duzue zuek?

Ba, Txorierrin zirkuiturik ez dagoenez, zirkuitu pribatu batera joaten gara eta bertan eginiko orduak ordaindu behar dituzu. Hemendik hurren dagoena Muskizkoa da, eta, autoa handiago batean probatu nahi izanez gero, Pau edo Jaramaraino joan behar da... Errepide zati bat ere moztu daiteke, baina ate asko jo behar izaten da, eta nahaste handia da azkenean. Pauekoaren antzeko zirkuitu bat Txorierrin balego, per-

*“Pauekoaren antzeko
zirkuitu bat Txorierrin
balego, perfektua
izango litzateke”*

*“Zamudion inoiz mendi
igoera edo rallyren bat
antolatzea gustatuko
litzauguke”*

fektua izango litzateke. Gainera, demanda handia edukiko luke, gure ustez.

Arrisku handiko kirola da hau, sustorik izan duzue inoiz?

Egia esan, pentsatzen den besteko abiadura ez da hartzen... Beno, apur bat bai inpresionatzen du, bihurguneak nahiko azkar hartzen direlako, baina autoa prestatuta dago horretarako. Sustorik? Ikusleek ematen dizkigutenez gainera baten bat izan dugu. Iaz, adibidez, gure pilotu batek airezko buelta eman zuen, beste batek horma baten kontra jo zuen...

Helbururik, etorkizunari begira?

Ba, Zamudion inoiz mendi igoera edo rallyren bat antolatzea gustatuko litzauguke. Dena dela, gauza handia da hori, eta dena oso ondo aztertu beharko litzateke. Beste alde batetik, irailean-edo Motorraren Eguna ospatzeko asmoa daukagu; erakustaldia Zamudioko industrialde batean izango litzateke.

*Testua: Itxaso Marina
Argazkia: Txorierrin Motor Sport*

“Lorerik gabeko lorategia hostorik gabeko zuhaitza da”

Urdina, gorria, berdea, horia, arrosa, morea... Aspaldidanik kolorez bete ditu Udaberriak Txorierriko balkoi eta lorategiak. Hala ere, udan gaude... Non landatu loreak? Zenbat aldiz ureztatu asteen? Galdera horiei erantzuna emateko Kima Landareak-eko Benito Gorbea inor baino egokiagoa da, petunia eta geranioen artean hamabi urte baitaramatza Lezaman.

Ondo ikusten zaizu hainbeste koloreen artean...

Bai, lorezaintzako gama guztiekin lan egiten dugu: sasoiko landareekin, barneko eta kanpokoekin, zitrikoekin, zuhaixkekin...

Sasoiko landareei dagokienez, zer daukagu?

Dalia txikiak, krabelinak, Ginea Berriko impathiens-ak, petuniak, geranioak, begoniak, surfiniak, alegriak, tajeteak...

Petunia bat eramango dugu, zer hartu behar dugu kontuan etxean edota lorategian landatzeko orduan?

Landareak aukeratu behar dira landatuko ditugun lekua kontuan hartuz. Izan ere, ez dira gauza bera mendebaldera begira dagoen landare bat eta ekialdera begira dagoen beste bat. Gainera, batzuek besteek baino hobeto jasaten dute beroa. Dena dela, lehen aipatu ditugun landare guztiek nahiko ondo jasaten dute beroaren asuntia... Beno, Ginea Berriko impathiens-ak aireztapen apur bat behar du, esate baterako.

Beste alde batetik, lorontzi batean jartzan badiugu adi egon behar dugu, substratua lehenago lehortzen delako. Ureztatzeaz gain, ongaria botatzea beharrezkoa da, landarea politago haz dadin.

Era berean, kimaketa ez datorkie txarto noizean behin.

Ureztatu baino ito egiten ditugu landareak batzuetan...

Hori zailagoa da, eguraldia ere kontuan hartu behar dugulako. Bide honetan, substratua atzamarrekin ukitzea taktika bat izan daiteke, urik behar duenentz jakiteko. Balkoietan dauden loreek denbora gehiegi ematen dute eguzkitan, eta asteen hirutan ureztatzea komeni da. Hala ere, gehiegi ureztatzen badiugu, lurra elikadura galdu eta maizago bota beharko diegu ongaria. Landareak askotan eta ur gutxirekin ureztatzea hobe da.

Eta lorontziz aldatu behar badugu?

Sustraia gehiegi hezi bada, heren bat moztu ahal zaio, sustrai berriak eta indartsuagoak botako ditu eta.

Lorontzia plastikozkoa edo lohizkoa izateak eraginik dauka?

Lohizkoa hobeto egokitzen da eguraldi-aldaketetara, baina ondo ureztatzen bada plastikozkoekin ez dago arazorik.

Zein landare mota eramaten du jendeak normalean?



Gustu, esperientzia eta lekuaren arabera aukeratzan dira. Orain surfinia eta nicotina daude modan, esate baterako.

Dena dela, hosto iraunkor eta berdeak dituzten landareak nahiago ditu jendeak; kolore horiak, adibidez, ez die grazia handirik egiten... Eta lorategi batean urtaro guztietako koloreak agertu behar dira, nire ustez. Izan ere, esaerak dion bezala, lorarik gabeko lorategia hostorik gabeko zuhaitza da.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Spyware eta Adware

Testua: Alberto Legarreta

Azkenaldian ikusten dogu antibirus ona eta firewall pertsonala eukitea ez dala nahikoa guztiz babestuta egoteko. Orain dala gitxi antibirusak eta firewall-ak kontuan hartzen ez daben softwarea agertu da: Spyware eta Adware dira motarik ezagunenak. Legezkoak dira, azken finean, erabiltzaileak onartzen daudelako instalatzea, eta normalean amarruak erabiltzen ditue hori lortzeko. Gehienetan helburu komertziala izaten dabe.

Beste alde batetik, troyanoak (teknikoki ez da birusa, baina, hobeto ulertzearren, holan deritxogu) direla pentsatzen dau jende askok, kalteak eragiten dituelako programetan eta sistema eragilean.

Spyware(Espioi Software)

Ordenagailuan instalatzen diren programak dira. Espioi bezala informazioa batu eta Internetera bialtzen dabe. Gehienetan onartu barik instalatzen dira beste programa batzukaz batera, hau

edo doako pro-
grametarik jaitsi eta
instalatu direnean.
Orain, erabiltzaile
bat Internetera
konektatzen
danean, bakoitzean
datuak batzen
ditu ezkutuan,
eta zerbitzari



batzuei bialtzen deute. Helburua komertziala da.

Adware (Publizitate ez onartua)

Spyware bezela, programa horreek ordenagailuan instalatzen dira beste programakaz batera, edo Internetetik ibiltzen zaren bitartean. Internetetik onartu egin behar dira beti, eta holan egiteko engainatzen gaitue. Honeek be ezkututan dagoz, eta Interneten zagozenezan leiho barriak zabalduz agertzen dira, publizitatea erakutsiz, hain zuzen be.

Babesteko eta ezabatzeko tresnak

-Babesteko, nik erabiltzen dot spyware-blaster eta ondo doa.

<http://www.javacoolsoftware.com/spywareblaster.html>

-Ezabatzeko Spybot – Search and Destroy.

Helbideak:

<http://www.vsantivirus.com/jm-spyware.htm>

<http://www.vsantivirus.com/spywareblaster.htm>

<http://www.spybot.info/>

<http://and.doxdesk.com/parasite/>

<http://www.spywareinfo.com>

Bidali zure iradokizun edo zalantzak
hurrengo helbide elektronikora:
traktor@euskalnet.net

Pasahitzak Internet Explorerean

Internet Explorerean aukera dago web orri baten pasahitzak gorde eta automatikoki sartzerakoan azaltzeko. Segurtasun aldetik ez da gomendagarria, baina erosoagoa da.

Hona hemen non kenduten dan aukera hori:

Internet Explorer barruan.

- Tools→Internet Options
- Content barruan



- Sakatu AutoComplete



- Han eukiko dozu ezabatzeko aukerea.



San Kristobalerako prest

Derioko gune historikoa den eleiza honen azken konponketak amaituta egongo dira bere egunerako, hau da, garagarriaren 10erako. Aikorlek bere daturik esanguratsuenak eskaintzen deusuez hurrengo lerrootan.

Historia

XII mendea S. Kristobalen lehenengo eleiza.

1578 Lehenengo jaiotze-agiri dokumentatua Juan Garairen izenean.

1688 Derio elizate legez onartzen dabe Batzar Nagusietan.

1745 Eleiza berreraiki eta handitu egin zan.

1959 Dokumentatutako azken heriotza.

Arteak

Eraikina Barroko tankerakoa, Derioko gune historikoa, noblea eta neuritsua.

Irudiak San Kristobal: egur polikromatuko irudia, XVIII mendeko barrokoa.

Kristo kurutzean: Gotiko berantiarra, hispaniar flandestarra, XVI mendekoa.

Errosarioko Amabirjina: barroko estiloko polikromatua.

Santiago: erliebea egur polikromatuan, XVII mendeko barrokoa

Erretaula rococo bi, XVIII mende amaierakoak.

Ikusten dogunez, eleizea prest dago erabilia izateko, baina bertako abadea Roberto Unzuetak azaldu deuskunez artegintza zein kulturgintzarako be izan daiteke. Hala bedi!



Corleonetarren arrastorik be ez!

Aspaldikoa genduan Siziliarako bidaia egiteko ametsa, Francis Ford Coppolaren El Padrino hamaika bider ikusi izanak itxitako kutsuaren ondorio seguruenik, eta, horregaitik, igazko abuztuan emigratzaile gehien emon dauan Italiako lurralderantz abiatu ginan.

Sizilia Mafia, Omertá, familien arteko sarraski eta holangoekaz lotu izan da betidanik, bertoko bizilagun guztiak Totó Riinaren oinordekoak izango balira lez. Baina gaur eguneko errealitateak egon baegoan iragan odoltsu ha gainditu gurean besoak zabaldu deutoz turismoak dakartsozan sosei.

Hasteko, aholku bat. Siziliara joatekoak bazarie hartu eizue *fly and drive* erako bidaia, hau da, abioia eta aldeztu aurretik errentan hartutako autoa uharte guztia zeharkatzeko. Holan lur eder eta txiro honek eskeinitako paraje estalduenak deskubritzeko aukera eukiko dozue.

Ekialdeko Catania urira heldu, eta 15 kmra dagoan Etna sumendiak orain dela 5 urte jaurtitako laba eta hauts kantidade izugarriak itsasoagaz topo egitean sortutako hondartzetan bainu baltz bat hartzeko denborea euki eta gero, Etnarantz abiatu ginan. Goiko paisajea, basamortu baltz eta sufre-usain jasanezinekoa. Handik Iparrerantz, Italiar Penintsulatik parajeen dagoan urira, Messinara, Il

Munduko Gerran entzute handikoa, eta, gaur egun, turismoari begira bizi dana.

Baina Siziliar kostaldeko toki bat nazio-arteko turismoaren zirkuitoan entzute handikoa bada, hori Taormina da, hego-ekialdean. Alemaniarrez, ehundaka *fashion victim* italiarrez, Britainia Handiko *hooligan* itxurako azalgorriez josita egoan itsaso ganeko atxetan eskegita dagoan uri hau. Handik Palermora, Iparraldean, tradizioz Mafiaren gotorleku. Uri zikin eta itxia iruditu jakun, arbaso aberatsak izan bazan oinordeko umila. Ikustekoa da 2000tik gora momia kontserbetan dituan konbentu baten sotoan dagoan nekropolia. Benetan ikusgarri eta antojugarria. Eta, amaitzeko, hegoaldeko Agrigentora, mahastiez inguratuta egozan erromatarrek eregitako urien aurriak ikustera.

Zer egingo deusogu ba, gure ametsetako soineko baltz eta gonapeko metrailetadun amamarik, inondik be ez !

Testua eta argazkia: Fernando Larrondo



Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Gazpatxoa

Osagaiak (5 pertsonentzat)

Piper gorri bi
Piper berde bi
Pepino bi
Tomate bi
Azenario bi
Zebolleta bat
Baso bete ur
3 koilarakada oliba orio
Binagre txorrostada bat eta gatza

Prestatzeko era

Tomateak eta pepinoak txikitu. Beste ortuari guztiak be garbitu eta txiki-txiki egin. Horren guztiaren ganera bota ura, orioa eta binagrea eta gatza egin. Euki gaba osoan neberan. Hurrengo egunean tritureu minimerragaz eta gero pasapuretik paseu. Hotz hartu. ON EGIN!



Mari Tere Onaindia

Legatza txangurroz beteta

Osagaiak (4 lagunentzat)

Legatz bat
Txangurro bat
Kipula bat
Azenario bi
Bexamela
Tomatea

Prestatzeko era

Lehenengo eta behin, 15 minutuan egosiko dugu txangurroa. Gero, okela atera eta kipula eta azenarioekin batera

gardostuko dugu (sutan apur bat pasatu). Ondoren, tomate eta bexamelarekin nahastuko dugu.

Beste alde batetik, legatza garbitu eta hezurak kenduko dizkiogu. Lau zatitan ebaki eta nahastutako oreaz beteko dugu. Labera 150 gradu zentigradotan sartuko dugu 15 minutuan.

Azkenik, legatza erretilu batean ipini eta goarnizioarekin zerbitzatuko dugu, esate baterako, patata panaderekin edo barazkiekin. Marinel-saltsa ere botako diogu.



Artea Errota jatetxea Zamudion

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Zoririk ez"

Imre Kertész

1929an Hungarian jaiotako idazle honek Nobel saria jaso eban 2002. urtean, eta lan honen itzultzailea dan Jokin Zaitetik ere Itzulpen saria hartu eban urte berean.

Eleberri honen protagonista Budapest bizi den 15 urteko mutikoa da.

Gerra dala eta, beste asko bezala atxilotu eta Auschwitz izeneko leku batera helduko dira. Han gertatutako gorabeherak, dramatismo eta sentimentalismo guztietatik ihesiz, era ia alai batekin kontatzen dauz.

DISKOAK

"Ilusions"

Ute Lemper

1963an Wesfalia aldean jaiotako abeslari eta dantzari hau gaur egun New Yorken bizi da.

Ilusions diska 14 abestiz osatuta dago eta bertan Marlene Dietrich eta Edith Piafen erreperatorioa erabiltzen dau.

"Stepmother city"

Sainkho Namtchylak

Siberian jaiotako abeslari honek, Tuva errepublikako abesti bifonico, doinu guturalak, erdi aroko instrumentuak eta pop abestien nahasketa aurkezten deusku bere azken diska honetan

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri?

Heldu da Txorierrira "adosatuen" moda. Herri batzuetan besteetan baino ugariego, baina denetan presente. Batzuk egin berriak, besteak zaharragoak eta baten bat urte mordoza aldean duenak. Lotu argazki bakoitza dagokion herriari.



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA 3

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri? Emaitzak: A7, B3, C4, D6, E2, F5, G1



Erakusketak

Sondika

“Sondikako Udala” Kale Pinturaren VIII. Lehiaketa. Uztailaren 1etik 13ra bitartean.

Ikastaroak

Lezama

Tenis ikastaroa. Uztailaren 13tik abuztuaren 31ra bitartean. Argibide gehiago 616025951 telefono zenbakian (Leticia).

Irteerak

Sondika

Uriosteko suhiltzaile parkera, Coca-Colaren instalazioetara, Santillana del Mareko zoora, Sopelako hondartzara...

Uztailaren 6tik 22ra bitartean. Argibide gehiago Ludoteka I eta II n.

Loiu

Tenerifera bidaia. Irailaren 18tik 25era bitartean. Argibide gehiago Udaletxean.

Zamudio

Salamancara. Uztailaren 3 eta 4an. Argibide gehiago Udaletxean.

Bartzelonako Forumera. Uztailaren 9, 10 eta 11n. Argibide gehiago Udaletxean.

Lezama

Bizkaiko kostaldera. Uztailaren 3an, goizeko 9etan. Adintsuen elkarteak antolatuta.

Picos de Europa. Uztailaren 31tik abuztuaren 1era bitartean. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Kirola

Zamudio

Bizkaiko Bira: Zamudio-Zamudio etapa. Uztailaren 3an, 09:45ean irten eta 12:25ean itzuliko da Zamudioko helmugara.

Zamudio-Posada de Llanes txirrindulari itzulia. Uztailaren 17an, 08:00etan. Argibide gehiago 944520568 telefono zenbakian (Seve Tielve).

Bestelakoak

Zamudio

Bilera irailaren 11n eta 12an Hiru Erregeen Mahaira joateko. Uztailaren 15ean, 19:00etan, Udaletxean.